

MARLEN HAUSHOFER

Ganbarara

ITZULPENA: NAROA ZUBILLAGA



n a r r a t i b a

erein

GANBARA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

— Federal Ministry
Housing, Arts, Culture,
Media and Sport
Republic of Austria

1. argitalpena: 2026ko ekainean

Jatorrizko izenburua:
Die Mansarde

Azalaren diseinua eta maketazioa:
Iván Landa | Erein

Egilearen argazkia:
Sybille Haushofer, Steyr / Wien

© Ullstein Buchverlage GmbH, Berlin. 2019an
Ullstein Taschenbuch Verlag-ek argitaratua. Lehen argitalpena: Claassen Verlag 1969an


© itzulpenarena: Naroa Zubillaga

© edizio honena: EREIN. Donostia 2026


ISBN: 978-84-1093-090-2

L. G.: D 401-2026

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu
Zubillaga industrialdea 9
20560 Oiñati
T 943 78 33 09
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



MARLEN HAUSHOFER

Ganbara

ITZULPENA: NAROA ZUBILLAGA



IGANDEA



Gure logelako leihotik zuhaitz bat ikusten da, desadostasunerako gai bihurtu duguna betiko. Hubert akazia bat delakoan dago. «Agazia» dio berak, aita Goriziakoa zelako eta halaxe ahoskatzen zuelako hitz hori. Ez dakit Goriziako guztiek ebakitzen dituzten hitzak horrela edo Huberten aitaren ezaugarri bat ote zen. Maite ditu Hubertek akaziak. Eztia eta hordigarria omen da haien loreei darien lurrina, hala diote antzinako eleberriek. Eta, hain zuzen ere, eztia eta hordigarria da haien darien lurrina, antzinako eleberrietan erabiltzen diren hitz deskribatzaile guztiek bete-betean asmatzen dutenez. Hitz horiek ezin gaur egun erabili, horixe kontua. Hala ere, munduan halakorik baieztatu dezakeen sudur bakar bat geratzen den bitartean, akazia-lorei beti jarioko zaie lurrin ezti eta hordigarria.

Huberten ustez, beraz, kalearen beste aldeko zuhaitza akazia bat da. Nahiz eta zuhaitzen inguruan ezertxo ere ez duen ulertzen. Haren aita, Ferdinand zaharra, garai hartan gaztea, akazien etorbide batean ibili ohi zen noragabeko paseo politean, eta horrexegatik bakarrik maite ditu Hubertek

akaziak. Paseoa ez zuen, noski, bakarrik egingo, neska gazte baten konpainian baizik. Neskatxak, jakina, guardasola izango zuen, eta guardasol hori zeta horiz egina. Eta aipaezina den lurrin hark beteko zuen mundua, biribila eta batere makurrik gabea zena eta gaur egun existitzen ez dena. Ferdinand zaharra ere ez da existitzen, baina haren semeak ez du etsitzen: gure leiho aurreko zuhaitza akazia bat omen da.

Hori entzunda, irribarrea baino ez zait ateratzen. Nire ustez, zuhaitz hori zumar edo haltz bat da; alegia, bistan da nik ere ez dudala zuhaitzez ezer askorik ulertzen, nahiz eta landa inguruan hazia izan. Izan ere, denbora luzea pasatu da ordutik, eta, gainera, batek daki non nituen nik garai hartan begiak.

Batere baliorik ere ez diot ematen natur zientzietako liburuan agertzen diren izenak jakiteari. «Ederrondo» nahikoa zait, guztiz, izendapen gisa. Txori batzuei «oingorri» edo «lumaberde» deitzen diet nik, eta izenez ezezaguna zaidan ugaztuna «ilajedun animalia» da niretzat: belarriluzea, buztanlodia, muturrotoa eta zetaren pareko ilajedun animalia. Hala izendatuei ez zaie batere axola, ez dute salaketarik jarriko ohorea zikindu diezulako, eta horko zuhaitzari ere bost, nola deitzen diodan. Beraz, izan bedi zumar edo haltz bat.

Zuhaitzak ez daki ni nagoenik. Haren ezaugarririk bixiena da neguan bakarrik geratzen dela ikusgai. Hostoak bota eta hostotzak estalia geratu bezain laster, ikusezin bihurtzen da, harik eta, egun batez, azaroko zeru grisaren aurrean, berriz ere adar soildu eta hauskorrekin agertu eta izenaren inguruko asmakizun-jolasa hasten den arte.

Ohean agondu, eta honela esan ohi du Hubertek:

—Agazia bat, argi dago.

—Zumarra edo haltza —diot nik egoskor.

—Tontotzat naukazu noski —dio Hubertek—. Zer uste duzu, ez dudala lehen begiratuan agazia bat ezagutzen?

Ondotxo dakit, berez, arrastorik ere ez duela zer itxura duen akazia batek, baina ez dut ezer esaten, mindu ez dadin. Inoiz ez dut zehazki jakiten zerk mintzen duen; pairamen handia erakusten du batzuetan, baina txikikeriengatik mintzen da beste batzuetan. Akaziarenak mindu egingo luke, seguru, haren aitarekin lotura duen edozerk bezala. Izan ere, modu ez agerikoan, arbasoak gurtu zale samarra da Hubert. Nik ere gurtzen ditudanez, zuhurtziaz jokutzen dut akaziaren gaia dela eta. Isildu, egoera bere onera etor zedin utzi eta zuhaitzari begiratu nion.

Igande bat da otsailean, eta eszena txiki hori igande goizero gertatzen da. Astegun batean, jakina, ez dugu gisa horretako jolasetan ibiltzeko denborarik.

—Txori bat dago zuhaitzean pausatuta —iragarri du Hubertek—, zozabarra.

—Bai zera —diot nik—, neguan ez da zozabarririk. Zozoa izango da.

Desabantaila txiki bat dut nik, Hubertek urrutira ikusten baitu ondo, eta nik, berriz, gertura. Nik orban beltz txiki bat baino ezin nuen ikusi bi adarren arteko lotune batean.

—Ez —dio Hubertek—, zozo bat ez da, hori seguru.

—Berdexka bat, akaso? —proposatu dut. Nik «berdexka» deitzen diedan txori horiek zehatz-mehatz zer izen duten ez dakit; txolarre handien itxura dute, baina berdeak dira.

—Zu eta zure berdexkak! —dio Hubertek mespretxuz, eta liburu bat zabaldu du: 1664ko San Gotardo-Mogersdorfeko guduren deskribapen bat.

Atsegin handiz irakurtzen ditu gudu zaharren inguruko liburuak, eta heriotzan usteldutako jeneral zaharrak baino estrategia hobea zatekeela irudikatzen du. Penagarria da ikustea zeinen mingarria zaion gure gudu galduak hartutako bidea ezin zuzentzea. Ez da abertzaletasunagatik —aspaldi ulertu nuen hori—, perfekziorako desira suhar bategatik baikizik. Edozein nazioen gudu galduak zaizkio Huberti mingarri. Hala eta guztiz ere, gisa horretako liburuak irakurtzeak gogobete egiten duela dirudi, eta, gudu zaharren inguruko liburuak tonaka daudenez, inoiz ez zaio irakurtzeko materiala agortuko. Lasai asko bizi liteke ehun urte. Ziur aski ez da halakorik gertatuko, eta desiratzekoa ere ez litzateke.

Hubertek berrogeita hamabi urte ditu orain, eta kontuan izanik ez duela bere osasunaren alde ezertxo ere egiten, sasoi on samarrean dago. Arteria-presio normala du, batzuetan karraska-hots arin bat egiten diote hezurrek eta lau hortz falta ditu; hori ez da asko. Bestalde, sarri samarra du ilea oraindik, marroia; ile urdindu batzuk ere baditu tartean, jakina. Beharbada gehiegi erretzen du; edan, ordea, apenas, eta gizon neurritsua da oro har, pedantekeriarako joera arin bat duena. Zahartzarora iritsiko da, zergatik ez. Egia da, lan gehiegi egiten du, baina gustura egiten du, itxura guztien arabera; beraz, horren kaltegarria ere ez da izango.

Hubertek irribarre egin du, eta badoa, akazia-lurrindun txirrista batean, berriz ere atzera San Gotardo-Mogersdorf gudura. Ahaztu ditu emaztea, zuhaitza eta zuhaitz horretan pausatutako txoria.

Zuhaitza lau ageri da zeruaren aurrean, arroz-paper grisean egindako marrazki bat nola. Itxura txinatarra ere badu, nolabait. Luzaroan begiratzen bazaio, edo gutxienez nik luzaroan begiratzen badiot, itxuraldatu egiten da. Zeru zuri grisaxka puzten hasten da adarren artean, baloi solteen forma hartzen du, baina berehala gatibatzen du zerua zuhaitzak –akaziak, zumarrak edo haltzak–, ezin konta ahala hatz zilar-grisekin. Orduan, begiak itxi eta minutu batera berriz irekitzen badituz, marrazki bat bezain lau ageri da zuhaitza. Irudi horrek ez nau tristatzen ez alaitzen, eta orduak eman ditzaket berari begira. Orduantxe hasten da berriz hasieratik itxuraldatze misterioitsua: zerua biribildu egiten da eta ezteki kakotutako hatzek preso hartzen dute.

Ordea, zuhaitz horrek duen gauzarik miragarriena da desirak xurgatu eta desagerraraz ditzakeela. Ez dut esan nahi nik, oraindik ere, desira bereziki suharrik dudanik, baina izaten dira kezakak, amorrazioak eta tirabirak. Hori guztia atera egiten du nigandik zuhaitzak, bere adarren artean pausatzen du eta estali egiten du hodei-bola zuriekin, harik eta guztia hozkirri hezean desagertzen den arte. Orduan, burua bira dezaket, hustuta eta arinduta dagoenez, eta ordu erdi gehiagoz lo egin. Ordu erdi horretan ez dut sekula ametsik egiten. Zuhaitza –akazia, zumarra edo haltza– zuhaitz arre-tatsua da, fidatzeko modukoa.

Esker oneko sentitzen naiz hori dela eta, indarrak biltzea baita gakoa, eta, indar horiei esker, denboran fundamentuz egitea aurrera. Ez naiz zalapartaka hasten den horrietakoa, baina ez nuke amorratuta edo ironiko ibili nahi, eta, hain zuzen, badut horretarako joera arin bat. Halaber, hobe ez ibili «hausnarketa sakonean» edo «muturtuta», edo

Austrian diogun moduan, *mocken*, hau da, «pipertuta ibili». Ingelesezko *sulk*, «muzindu», hitzak adierazten du ondoen ezinbestean saihestu behar den egoera hori. «Muturtuta jartzeak» errespetu faltazko jolas moduko bat dirudi, eta «hausnarketa sakonean» jardutea beste gauza erabat desberdina da; ermitauk ere jarduten dute hausnarketa sakonean, eta hori ez da inorentzat enbarazu; muturtutako ermitau bat, berriz, ez du munduak oraindik ezagutu. *Mocken* aditza, «pipertuta ibiltzea», gehiago gerturatzen zaio bila nabilen hitzari, halaxe dabilen pertsonak bizi duen makaltasun edo zozotasunari egiten diolako erreferentzia. *Sulk* «muzindu» aditzak, ordea, dena jasotzen du bere baitan, are hoztasuna eta antzeztutako axolagabekeria ere, horiek baitira, muzinduta, biktima mintzea helburu duten bi ezaugarriak. Eta nik ez dut inor mindu nahi. Bestela ere, jende gehiegi mintzen da etengabe.

Hubert hausnarketa sakonean murgiltzen da tarteka. Hausnarketa diskretua da, ordea, idazmahaiian eserita eta aurpegiaren aurrean egunkari bat duela. Batzuetan, kafe-etxe batera ere joaten da horrexetarako. Niri ez litzaidake burutik pasatuko harekin batera joatea. Kafe-etxe batera joan nahi badut, bakarrik joaten naiz ni. Senar-emazteei ez zaie halakoetan ezer galdu. Edozer gauza egin dezakete batera, baina kafe-etxe batean eseri eta egunkaria irakurri, ez. Berehala pizten da elkarrekin kokoteraino daudelako susmoa.

Jakina, batzuetan kokoteraino daukagu batak bestea, baina hori hala dela jakitun izan bezain laster, malenkonía sakonean hondoratzen gara, harik eta egoera deitoragarri hori pasatzen den arte. Besterik gabe, ezin dugu batak bestea

kokoteraino eduki luzaroan; izan ere, norengana joko genuke gainerakoan? Nor izango genuke helduleku? Gizaki guztiak zaizkigu arrotzak, baita gure lagunak ere, ezagunak baino ez baitira berez. Arrotza zaigu gure alaba Ilse bera ere, hamabost urte baititu eta ez baitaki gurekin batera zer egin. Etxeko gelarik politena du beretzat, ongi egon behar baitu, eta zoriontsu sentitzea nahi genuke. Oso ondo ari da garatzen, eta neska alai da; batzuetan komentura joandako izeba baten antza hartzen diot, baina Ilse ez da komentura joango. Ezin dezaket halakorik ziurtasunez esan, behin eta berriz gertatzen baitira ustekabeak. Ilserentzat oso ona da guk berez haren beharrik ez izatea eta hari pega-pega eginda ez egotea. Ilse ez da gure familiarte estuaren parte. Zerbait gertatu zen hura jaio aurretik, eta horrek eragin zuen gurasoen benetako bizitzaren ostean jaiotako ume bat izatea.

Hilondoko alaba da. Desberdintasun bakarra da hortxe dabilzkiola gurasoak, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Mota horretako ume pila bat egongo da seguru asko, eta inork ez du hitzik egiten horren inguruan. Nolanahi den, Ilse aski zoriontsua dela uste dut. Lagunek inbidia diote, gurasoen arreta osoa duelako, berak hala nahi izanez gero. Zein umek du halako zortea?

Gure seme Ferdinand, Huberten aita Ferdinand zaharren omenez hala izendatua, ez da horren zoriontsua. Uste dut sekula ez dela guztiz zoriontsua izan. Aipatutako gertakaria baino lehen jaio zen, eta beti egon da gure bizitzen erdigunean, hortxe, ura guztiz higigaitz geratzen den lekuan, baina, era berean, irregulartasun txikienak gorputz hori auskalo nora eraman dezakeen lekuan. Antzeman beharko zuen hori. Garaiz ulertu zuen hobe zela ez gehiegi mugitu

eta, oro har, zuhurtziaz jokatu. Ez da koldar bat; hain zuzen ere, Ferdinand du izena, nahiz eta kaiser kutsuko izen horrek adarjotzeak ekarri zizkion herriko eskolan. Behar bada pozik ere egongo da aitonak ez zuelako Leopoldo izena, aukera handiak baitzeuden horretarako. Hogeita bat urte dituenetik, hau da, urtebetetik hona, maizter bizi da bederatzigarren barrutiko gela batean. Izan ere, oinordekotza bat ere badu Ferdinandek. Huberten amak, kontseilari andre zaharrak, diru guztia utzi zion oinordetzan. Ferdinandi dirua eta Huberti etxea; etxea, bestela ere, aitaren oinordetzatik zegokiolarako Huberti, amak bertan bizitzeko beste esku biderik ez baitzuen. Ilseri ez zion ezer utzi, ezta harribitxirik ere; eta niri ere, noski, ezer ez.

Igandetan sarri etortzen zaigu Ferdinand bazkaritara; aste barruan, batzuetan agertzen zaigu kafe-orduan eta, jaiegunetan, jakina, bisita egiten digu. Ez baita etxetik joan gustuko ez gintuelako, aske eta beregain bizi nahi duelaiko baizik. Andre zaharraren dirua nahikoa izango du ikasketak guztiak amaitu eta bere gastuak ordain ditzan. Hori dela eta, Hubert amorratu egiten da bere baitarako, baina ni pozik nago. Ferdinandentzat ona da, ez digulako dirurik eskatu behar eta pertsona aske bat izateko fantasia bizi dezakeelako. Bide batez, ez dut uste oraindik sineskeria horri lotuta dagoenik. Egia esan, oso agudo ulertu izan ditu beti gauzak. Gertakariaren aurretik jaio eta zurrunbiloaren bihotzean kokatzen den semea inguruan edukitzea egoera desatsegina litzateke. Ferdinand familiarte estuko parte da, eta horrek zaildu egiten du harekiko harremana. Gertutasun hori ikaragarritzkoegia da, eta gu hirurotako inork ez du gertutasun handiegirik eduki nahi.

Nolanahi ere, Hubertek eta biok ez dugu erremediorik, eta, beraz, askoz gehiago ere ez zaigu gertatuko, pertsona oro harrapatzen duen patu orokor eta aldaezina baizik. Horregatik, ona da Ferdinand gugandik erretiratu izana. Akaso izango du tarteka familia burges baten erosotasunekiko nostalgia, baina hantxe bizi da, gela batean maizter, nostalgia mespretxatuz eta betiere kontu eginez, erdibide lasaian geratzeko eta eremu arriskugarrian oinik ez sartzeko. Eta etxe hau baino eremu arriskugarriagorik ez legoke harentzat. Batzuetan etsigarria ere egin behar zaio, ez baitauka kolpe batean munduaren ertzera eramango lukeen pausoa emateko ausardiarik. Halakoetan, liburuak eta apunteak itxi eta zinemara joaten da edo lagunekin elkartzten da. Neskekiko duen harremanaz arrastorik ere ez dut. Badu nola baiteko xarma, eta horrek, ziur aski, handinahiak eta dominatu zaleak diren horiek erakarriko ditu, saihestu behar dituen horiek, hain zuzen ere.

Ilsek nire amaren antza du eta berezko naturaltasun zoriontsu baten jabe da. Beharbada Hubert ere izan zitekeen zoriontsu. Zoriontsu ez izateko arrazoia ez dagokio hainbeste berari, baizik eta hainbat eragin eta egoerari, ez baitzuen eragin eta egoera haiek eskatzen zuten moduan jokatu. Ferdinandek ez du ez nire ez Huberten antzik, aitonarena baizik. Misteriotsua den modu batean, beti izango da garai batean «benetako jaun» esaten zen hori. Hori Ferdinandek berak ez daki, noski, inoiz ikusi edo bizi gabeko gauza eta egoerak ezin ezagutu baititzakegu. Bestalde, argi dago Ferdinand bera ez daitekeela izan bestelakoa; gure aurreko aldian jaiota, anakronismo bihurtu beste aukerarik ez du. Hori ikusita, ez dakigu poztu edo gaitzitu egin behar

dugun; bestela ere, ez litzateke ezer aldatuko. Orain ezin dugu ezertxo ere aldatu; gertaturikoa gertatu da eta horrek bere bidea darama. Zirkinik ere ezin dugu egin. Bide batez, susmoak baino ez dira horiek, Huberti dagokionez behintzat bai, zeren apenas hitz egiten dugun semearen gainean, eta are gutxiago maila horretan. Ilse hizketagai xalo bat da, familiarte estuko parte ez den jendearekin gertatzen den bezala, baina inguruan gustura hartzen duguna eta atsegintzat daukaguna.

Seme-alabek ia ez dute harremanik elkarren artean. Handiegia da adin-tartea. Ferdinandek txolintzat dauka Ilse, eta hori, noski, ez da horrela, eta Ilsek tipo arrarotzat dauka Ferdinand, eta hori, Ilseren ikuspegitik, ulertzekoa da. Batzuetan, Ferdinandek karameluak oparitzen dizkio, edo latineko ariketaren batekin laguntzen dio. Hiru urtez baino ez ginen izan benetako familia: Ferdinand jaio eta inoiz mintzagai hartzen ez dugun eta gutako bakoitza ahazten saiatzen den gertakari hura jazo zen arte. Erabat ere ahazten dugu tarteka, baina ondorioak, horiek ezin dira desagerrarazi.

Horregatik, pozik nago, zuhaitzak nigan dauden oroitzenak aienatzen dituelako eta inolako ametsik gabe lo egin dezakedalako ordu erdiz.

Iratzarri nintzelarik, neguko zero grisa zulatzekeo puntuan zen eguzkia. Egunero egiten du saioa, non eta euririk edo elurrik egiten ez duen. Ordea, ez du ia inoiz lortzen. Eginahal horiek zerbait oso hunkigarria dute nire ustez. Lanbroaren atzean ageri da biribil gorrixka gisa, eta arrosa koloreko argi bitxi bat isurtzen du hirirantz. Heze egongo balitz bezala dirdirarazten du zuhaitza, eta zilarrezko eta

kobrezko bihurtzen ditu haren adarrak. Halakoetan, ezin irudika dezaket benetako zuhaitz bat denik, adarrak lurpean dituen eta barnean izerdia, neguan ere gorantz datorkiona. Halakoetan ez dirudi izaki organiko bat, objektu artistiko bat baizik, kristala bezain gogor eta dirdiratsu.

—Oso bitxia —esan zuen Hubertek, eta albo batera utzi zuen San Gotardo-Mogersdorfeko gudua—. Bitxia, benetan. Txori batek, hegaz atera eta, zuhaitza uzten duen bakoitzean, beste bat pausatzen da bertan.

—Zeremonia bat, beharbada —gaineratu nuen nik alferrik.

—Zer egingo dugu gaur? —galdetu zuen Hubertek.

Hura entzunda ziztada txiki bat sentitu nuen, ez oso mingarria, zauri zahar bat ukitzean sentitzen dena bezalako. Galdera hura eginda, niganantz bultzatu zuen egunaren gaineko erantzukizuna: egizu zerbait gutxi gorabehera atsegina, igandetan ezin naiz eta bulegora joan. Ez duzu ahalegin handirik egin behar, bururatuko zaizu zer edo zer.

Jolas moduko bat da, geratzen zaizkigun azkenetako bat. Lehengoko jolasetan hobe ez pentsatu. Niri ere erantzun berririk bururatzen ez zaidanez, jolasari jarraitzera behartuta nago. Bide batez, beti jarraitzen diot proposatutakoari, garrantzitsua iruditzen baitzait disonantziari lekuri ez egitea. Disonantzia batek orduak edo egunak utziko ninduke asaldatuta, eta ez naiz halakorik nire gain hartzeko gauza.

Ilse eski-ikastaro batera joana zen klasekoekin batera hamar egunerako. Baina hemen dagoenetan ere, nahiago izaten du igande arratsaldeak bere jende gaztearekin igarotzeko baino. Goiza txukunketan eta sukalde lanetan pasatuko genuen. Ez gara ia inoiz jatetxe batera joaten,

txoratzekoa iruditzen baitzaigu zerbitzariari itxaron beharra, ea, azkenean ere, noiz dakarkien kontua. Gainera, leku garestietan ere, penagarria izaten da janaria, eta bertan egoten diren askotariko usainak eta askotariko pertsonak ere, gertuegi esertzen direnak, ez zaizkigu gustatzen. Beraz, arratsalderako bakarrik behar dugu plana; ez dugu, bada, beti diskoak entzungo edo irakurriko.

—Pintura frantses modernoaren erakusketa bat dago —esan nion, beldurti. Hubertek mar-mar baino ez zuen egin.

—Edo altzari finlandiarrak —esan nion.

—Ikaragarriagorik! —erantzun, Hubertek.

—Paseo bat —proposatu nion—, eta, gero, film suediar bat.

—Aspertu egiten naute suediarrek —erantzun, Hubertek. Ni ere aspertu egiten naute, eta, horregatik, berehala etsi nuen, eta esan:

—Nolanahi ere, ez naiz gustura joaten zinemara, hain dira aztoragarriak filmak.

—Zer ba? —galdetu, Hubertek.

—Ez ditut aurpegi erraldoi horiek gustuko —esan nion—. Guztia hain da ikaragarri handia, sentipen desatsegina zabaltzen zait gorputzean. Erraldoien beldur naiz. Aizu, eta, noiz izan ginen azkeneko zineman?

Hubert pentsatzen geratu zen. Senar-emazte gisa osatzen dugun bikotean, bera da oroimena.

—Duela zazpi hilabete —erantzun zuen—, film dibertigarri bat.

Orduan gogoratu nuen.

—Ez zen batere dibertigarria —esan nion—. Pantailako buru handi beldurgarri haiek. Gizajaleak bezala. Guztiek zabaltzen dute ahoa parez pare, eta hortz gehiegi ikusten

dira, eta arroilak diruditen zimurrak, eta emakumezkoek betile faltsuak izaten dituzte; erabat lizuna. Maitaleek ere ogroak dirudite. Beldur handia pasatu nuen.

Burua biratzeko ahalegina eginda, Hubert begira geratu zitzaidan. Grisak ditu begiak, eta garai batean ausarkeriazkoak iruditzen zitzaizkidan. Une hartan, ordea, izotz azpiko urezkoak ziruditen. Izotzaren azpian bazen zerbait dirdirakka: arrain txiki-txikiak izoztutako aintzira baten hondoa.

—Arraroa —erantzun, Hubertek—, ez naiz akordatzen. Beldur zarenean, beti arnasten duzu askoz azkarrago. Berehala konturatzen naiz.

—Filmean murgilduta zeunden, eta barre egin zenuen, oso ondo akordatzen naiz. Ezin izan zinen konturatu.

—Baina lehen ez zinen inoiz zineman beldurtzen —esan zidan.

—Telebistagatik izango da —esan nuen azkar—. Seguru asko, ipotxetara ohituz gero, ezin erraldoiak jasan.

—Tira, ez goaz zinemara, eta eskerrak —ebatzi zuen Hubertek.

—Bisitarik ere ez, ezta? —galdetu nion.

Hubertek ez zidan erantzunik eman, nahiz eta nire galdera bera ere guztiz serioa ez izan. Baldin eta, nolabait ere, halakorik saihesteko modurik badugu, ez dugu inoiz bisitarik egiten. Ez dugu ezagun askorik, eta bat bera ere ez biok partekatzen duguna; seniderik ere ez dugu, eta edukiko bagenu ere, argi dago nekez bisitatuko genukeela.

Sentitu nuen zurrunbilo baterantz hurbiltzen ari nintzela, eta berehala harrapatuko ninduela. Ordea, ez nuen nahi harrapatu nintzan, jolasak iraupen jakin bat baitzuen, eta denbora hori agortu gabe genuen artean.

—Dendetan ikusmiran ibili? —galdetu nion.

Hubertek barre egin zuen. Haren barrea ez zitzaidan atsegineria egin, itoa eta amarruz betea, nolabait. Hubertengan bada joera maltzur bat, gutxitan baino geratzen ez dena agerian. Garai batean gustuko ere banuen, ezusteko txikiz betetzen baitzuen bizitza. Gaur egun, barre horrek gehiago esan nahi du «ulertzen zaitut, maitea». Eta ez dut atsegin erabat uler nazaten.

—Tira, ba —esan nion otzan—. Goazemazu Arsenalera.

Hura entzunda, Hubert gustura etzan zen atzera kuxinen gainean, eta berriz zabaldu zuen liburua.

Igande arratsalde batean zer egin ez dakigun bakoi-tzean, Arsenalera joaten gara. Azken-azken aukera balitz bezala egiten dugu, baina, berez, ez dugu beste inora joan nahi. Hubert horren gustura joatea ulertzen dut; ni ere zergatik noan horren gustura, hori ez daukat horren argi, baina halaxe da. Nahiago dut Arsenal beste edozein erakusketa eta museo baino. Niri neuri nahiko aztoragarria zait konturatzeari etxean bezala sentitzen naizela han.

Azken begiratu eman nion zuhaitzari. Eguzkiak, uxatuta, atzera egina zuen, eta iraungia zen argi arrosa. Jaiki eta gelatik atera nintzen.

Bazkalostean ordubeteko ibilaldia egin genuen. Eguraldi lainotua, hotza eta haizegabea genuen. Atsegina zitzaidan hori niri, sufritu egiten baitut hiri honetan etengabe dabilen haizearekin. Ez genuen pisuzko ezertaz hitz egin, eta baketsu eta adeitsu jardun genuen. Baina, horrela gara ia beti. Egia esan, beti. Artean ez nekien biharamun goizean modu bixian aldatuko zela nire bizitza, eta Hubertek ere ez zekien. Uste dut ez duela inoiz jakingo; hala espero dut behintzat.

Gero, autoz joan ginen Arsenalera. Atsegina da igandetan autoz ibiltzea, baita otsaila bada ere, nahiz eta ez den udan bezain atsegina, igandetan hiria mortu ageri baita, asfalto beroaren usaina nagusi.

Hubertek berehala erosi zituen, sarreran, Ebelsbergeko 1809ko guduaren inguruko liburuxka bat eta Eugen printzearen postal bat, Johann Kupezkyren margolan bat. Postala Huberten idazmahaian desagertuko da sekula idatzia izan gabe; izan ere, nori idatziko dio Hubertek postal bat? Gero, berehala joan zen Lehen Mundu Gerrako irudiak dituzten erakusleihoetara. Sinetsita dago aita aurkitu duela argazki zahar horietako batean. Nik ez dut ezer esateko, gizon gazte mehar bat baino ez baitut ikusten, lotinantorde uniforme soinean, bernak oihal bilkariz lotuak, boneta pixka bat kopetaren albo batera bultzatuta, metrailadore bati begira-begira dagoela, nekatuta eta pentsakor. Argazkia Tirol hegoaldeko mendialderen batean hartua da, eta kolore horixka hartzen hasia da dagoeneko. Huberten aita hirutan baino ez dut ikusi, eta garai hartan hirurogeitik gora zituen. Izan zitekeen bera, jakina, baina itxura bereko gazte mordoa egongo zen noski.

Erakusleihen aretora iritsi bezain pronto, ahaztu egiten nau Hubertek. Mantso egiten dut nik aurrera, areto ezagunetan zehar paseoan, eta soldaduen uniforme zaharrez jantzitako figurak begiesten ditut, beiraren atzean hain baitirudite bizidunak, beldurgarriak baitira. Jakina, gertutik ikusita ez dirudite, ez bizirik ez hilik; panpinak dira, eta badute panpinei dagokien zer erakargarri eta aztoragarri hori. Oso luze egoten naiz beti hor zutik. Liluratu egiten naute. Arsenal osoa da leku erakargarri eta aztoragarri bat,

beharbada horregatik dut horren gustuko. Bisitatzan ditut Radetzky aretoa, Karl Artxidukearen aretoa eta Eugen Prinzaren aretoa, eta bertan nagusi diren ordena harrigarria eta garbitasuna miresten ditut neure kabutan. Hiri hone-tako beste ezein museo ez dago Arsenal bezain zaindua eta maitasunez gobernatua. Harrigarria da, baina, azken ba-tean, erabat naturala eta adierazgarria ere bada. Nire ibi-laldia Kara Mustafaren karpan amaitu zen, ia beti bezala, karpa turkiar handian. Bertan hartu ohi dut atsedean.

Banekien, kanpoan, autoak hiriko Gürtel ingurabidean barrena zebiltzala, semaforo-argiak aldatzen zebiltzala, eta atsekabez jabetu nintzen gehiago sentitzen nintzela etxean bezala hilotzen erreinu baketsu hartan, kanpoko hiri bizi-dunean baino. Guztiz ziur ere ez nago, hiria egiaz bizirik ote den edo ez ote den figurek jauzi eta korri egiteko leku bat, bertan gorputza astindu dezaten, erakusleihoetan giltzape-tuta geratu baino lehen, erakusketan begietsitako arkabuz-dun zahar horien gisan.

Gustura egoten naiz nitaz jabetzen ez diren eta hurbil-tzen ez zaizkidan gauzez inguratuta: itsasontzi zaharren ma-ketak, inguruan haizerik ez badabilkie ere, oihalak zabalik dituztenak; eta hainbat eta hainbat bandera eta zutoihal, garai batean dena esan nahi bazuten ere, gaur egun ukitu ere ezin den zeta zahar hauskorra baino ez direnak. Zahar-minduaren usaina zegoen, larruarena, higatutako oihalena eta zorua garbitzeko produktuena.

Turkiarren karpa handian elkartu ohi gara gehienetan berriz, eta, orduan, isilik eta mantso joaten gara eskailera-tan behera. Banekien ez ginela hangoak, baizik eta kanpoko mundukoak, autoak eta semaforoak zeuden hartakoak; izan

ere, huraxe zen gure mundua, aukeratu ezin izan duguna. Baina etxe hartako isiltasun eta lohasmak bazuen iragan orori dagokion erakargarritasuna, nahiz eta iragan hori gorrotagarria eta nazkagarria gertatu; erakargarria delako baita, hain justu, gorrotagarria eta nazkagarria.

—Ezagutu al duzu gaur? –galdetu nion.

—Ia-ia seguru nago orain –erantzun, Hubertek—. Argi dago haren jarrera dela. Baina, jakina, sekula ez naiz guztiz ziur izango.

—Horixe –esan nion nik—, guztiz ziur ez zara sekula izango.

Eta ez genuen gai hartaz hitz egiten jarraitu. Igaroa zen Arsenalgo arratsaldea, eta kalean ginen zutik. Elurra egiten hasia zen, maluta txiki isiletan, eta airea hotza eta garbi usainekoa zen. Etxera bueltako bidaian isilik egon ginen. Hubertek kontzentratu egin behar zuen, errepidea irristakor baitzegoen eta gure autoko haizetako bat ez zebilen guztiz ondo. Laino baten atzetik bezala ikusten nuen errepide aurrean zegoena. Gainera, ilunduta zegoen ia-ia, eta argiek itsutu egiten ninduten.

Gure etxaurreko belar labur horia estalia zuen elur-maindire fin batek, eta ikuspegi hark zerbait ekarri zidan akordura, baina ez nekien zehazki zer, eta haren gainean pentsatzeari utzi nion.

Etxea goxo zegoen, eta ke-usain arin bat sumatzen zen, guztiz uxatu ezin daitekeena. Ordea, mandarina-azalen usaina ere bazen, mahaigainean baitzeuden, eta lurrinen nahasketa hura hain txarra ere ez zen. Hubert bere gelara joan zen, eta nik banekien San Gotardo-Mogersdorfeko gu-duarena bukaeraraino irakurriko zuela. Aste barruan, izan

ere, ia ez du irakurtzeko aukerarik, ez, behintzat, gustuko gauzarik.

Banekien, beraz, behar zuen guztia zuela; ganbarara igo eta nire marrazketa-mahaira eseri nintzen. Ganbara nirea da. Hubert bera ere nik berariaz gonbidatzen dudanean bakarrik sartzen da bertan. Gutxitan gertatzen da hori, eta gehiago da erritu gisako bat. Salbuespen gisa konfiantzazko adierazpen bat egiten didanean, eta badakidanez horren ostean ez dela eroso sentitzen, trukean eta adiskidetze keinu gisa, nire sekretuetako bat eskaintzen diot. Oso txikiak eta hutsalak dira nire sekretuak, narrasti eta txorien marrazkiak batez ere; ordea, ez dut eskaintzeko besterik. Huberten konfiantzazko adierazpenak ere ez direnez gauza handia izaten, dena da normala, eta berriz lortzen dugu oreka.

Ganbaran marraztu edo margotu egin dezaket, eta, gogoak ematen badit, besterik gabe, batera eta bestera ibil naiteke, Hubert urduri jarriko lukeen ohitura bat. Talentu bakarra jaso dut, eta ez du askorik balio. Garai batean liburuak ilustratu nituen, baina aspaldiko kontuak dira horiek. Hubertek ez du nahi nik horrela dirua irabaz dezadan, ezta kopuru txikia balitz ere. Bereziki, jakin dugunetik Ferdinandek ez duela harengandik ezer gehiago behar. Ni ere pozik nago ez diedalako bezero baten esanei eutsi behar eta nik nahi dudana marraz dezakedalako.

Nire talentua mugatua da, baina, muga estu horien baitan, nolabaiteko antzea erdietsi dut. Betidanik marraztu dut, eta, bigarren hezkuntzaren ostean, diseinu eskola batera ere joan nintzen bi urtez. Ikasi nuen han ikas nezakeen guztia, baina, berez, oso garrantzitsua ez zen izan niretzat. Ez dut inoiz marraztu beste ezer, intsektuak, arrainak,

narrastiak eta txoriak besterik; ez naiz inoiz ugaztun eta pertsonetara iritsi. Loreak ere marraz nitzakeen, baina inoiz ez naute askorik erakarri.

Azken urte hauetan, ia bakarrik txoriez interesatu naiz. Badut helburu jakin bat begien aurrean, baina ezin dut irudikatu zer egin beharko nukeen inoiz helburu hori erdietsi behar banu. Akaso horixe izango da aurrera ez egiteko arrazoietakoa bat. Nire helburua da txori bat marraztea munduan bakarra ez dena. Horrekin esan nahi dut lehen begiratuan antzeman behar litzaiokeela ez dela bakarra. Gaur arte ez dut arrakastarik izan, eta zalantza egiten dut inoiz arrakastarik izango ote dudan. Batzuetan uste dut azkenean ere lortu dudala, baina biharamunean, marrazkiaren aurrean nagoelarik, ikusten dut txoriak ez dakiela badirela, beraz gain, bere gisako gehiago, eta marrazkia hartu eta armairuan sartzen dut giltzapean. Armairuan, txori bakartien mordoxkak daude dagoeneko: nitaz gain inortxok ere ikusi ez dituen marrazkiak. Soilik Hubertek ezagutu ditu horietako batzuk, baina harentzat artelan txikiak baino ez dira; ez daki hutsegiteak direla denak. Aldian behin esperantzarako izpi bat ikusten dut, baina oso gutxitan. Duela urte asko, artean ere nire arreta txorietan finkatu gabe zegoelarik, zozabar bat egin nuen, ematen zuena ondoko lorategian urrunean zegoen beste zozabar baten deia entzuten zuela. Buruari eusteko modua eta luma harrotuak ziren horren erakusgarri. Baina, aieru bat baino ez zuen adierazten, eta ez elkar ezagutze bat. Hala ere, garai hartan oso zorioneko sentitu nintzen. Marrazkitxo hura gerran galdu zen.

Duela egun batzuk enara bat hasi nuen, baina hura hasiera-hasieratik izan zen okerreko hautua. Enarak beti

saldotan ikusten ditugunez, txori sozialak direla irudikatzen dugu. Okerreko ustea da, ordea. Bata bestearen ondotik pasatu baino ez dira egiten hegan, eta beren harrapakina baino ez dute buruan. Nire enarak, gutxienez, oso pozik zirudien berak hautaturiko bakardadean; apaingarri gisako animalia polit bat zen, eta haren luma bakar batek ere ez zuen beste inongo enaratan pentsatzen. Hamar minutuz aritu nintzen enararekin, aldaketatxo bat lerroan bateko, kolore pixka bat besteko. Gero, jaiki eta batetik bestera hasi nintzen oinez. Ona da ganbara sukaldearen gainean egotea, horrela ez baitiot Huberti enbarazurik egiten. Eta niretzat oso garrantzitsua da batetik bestera joan ahal izatea: mahaitik tximinhodira, handik gora igarotzen baita, gero armairura, handik dibanera, eta, azkenik, leihora. Leihotik, auzoko etxearen horma ikusten dut, horma gris oso zatar bat. Ondo dago, horrela ezin baitit arreta galarazi. Hatzak zurrundu samar geratzen zaizkit, marraztea debekatzen diedan bakoitzean. Begiak itxi eta enara ikusi nuen nire aurrean, nik ikusi nahi nuen moduan. Berehala, mahaira arrapaladan joan eta begia aldatu nion pixka bat. Itxura desafiatailea hartu zuen, une batetik bestera bakarria izatearen poztasunaz lehertuko balitz bezala. Enara lotsagabeagorik ez da inoiz izan; nitaz trufatzen zela zirudien. Honela zioen haren begiak: «Munduko enara bakarria naiz, Jainkoari eskerrak!». Horrek hainbeste aztoratu ninduen, papera urratu eta paperontzira bota bainuen; munstro txiki hark ezin zuen armairuan ere iraun.

Berriz ere hutsegite bat, eta modu bereziki desafiatailean gainera. Paseatzen hasi nintzen berriz, eta, bat-batean, nire kontua zela jakin nuen: argi zegoen, txori bakartiak baino ez nituen marraztu nahi. Ezagutza horrek luze arduratu

ninduen; ez zidan, ordea, aurrera egiten lagundu. Azkenean ere, ulertu nuen ezin nuela egun hartan ezer berririk hasi, eta egongelara jaitsi nintzen.

Hubert telebistaren aurrean zegoen, kirol emankizun bati begira. Kirolak ez zaizkio askorik axola, baina gutxitan galtzen du emankizun hori. Bestela ere, denbora gehiegi ematen du telebistaren aurrean eserita, eta bakarrik eserita egotea atsegin ez duenez, nik neuk ere askotan xahutzen dut denbora gisa horretan. Nekez ohartzen da hor nagoela, ez du nirekin hitz egiten, baina gelan egon nadin nahi du. Batzuetan irakurri egiten dut bien bitartean, baina txarra da hori begientzat, gelan ilunegi dagoelako; bestalde, telebista ikustea ere txarra da begientzat. Funtsean, egiten dugun guztia da txarra zerbaitentzat. Azken batean, eta aholku guztiei jarraituz gero, hilik egotea litzateke osasungarriena.

Hala, beraz, hamaikak arte egon ginen han eserita, eta ez dut gogoan ezer ikusi izana. Eta, ikusi, ikusiko nuen zerbait, denbora guztian eduki baintuen begiak zabalik eta pantailari beha. Non dira modu horretan edo antzekoan galdu zaizkidan orduak, egunak, hilabeteak eta urteak? Aztoragarria da konturatzea zenbat gauza ez ditudan akorduan. Nolabait ere baketsua den belardi batean eserita zaude, eta ezin sumatu une batetik bestera irten daitekeela zuhaixkaren baten atzetik jauzi batean animalia basati bat. Ez ditut ezustekoak maite.